

Donostia, 2021eko apirilaren 13a

25/21 PRENTSA OHARRA

DONOSTIA IZANGO DA MAN ETXEAREN 12 METROKO AUTOBUS %100 ELEKTRIKOA PROBATUKO DUEN LEHEN HIRIA

Datozen bi asteetan, Dbusek MAN etxearen Lion 's City E modeloko 12 metroko autobus %100 elektrikoa probatuko du benetako zerbitzuan, bidaiariekin. Autobusak **egunean 250 kilometrotik gora egiteko autonomia** du. Donostia da autobus berri hau probatuko duen Estatuko **lehen hiria**, ondoren beste hiri batzuetan probatuko baita, hala nola Valentzian, Sevillan edo Malagan.



Probak **24-Altza-Gros-Antiguo-Intxaurrondo** eta **33-Larratxo-Intxaurrondo-Antiguo-Berio** lineetan egingo dira, **erabiltzaileekin eta benetako baldintzetan**. Ibilbide zorrotza duten auzoarteko bi linea dira, egunero batez beste 240-270 km egiten dituztenak. Ibilgailu honekin orain arte Donostian probatutako autobus elektrikoek **autonomia gainditzea espero da**.

Autobus berria gauzez kargatzen da Kotxetegietan, 3 orduan, 12 metroko beste autobus elektriko batzuekin alderatuta denbora gutxiagoan, eta ez dauka kargatu beharrik ibilbidea egiten ari den bitartean. Bateriek 480 kWh-ko edukiera dute, eta 150 kW-ra arteko karga potentzia. Proiektu pilotu berri honekin, beraz, autobus elektrikoek teknologia honen egungo autonomia muga gainditu nahi da.

Gaur egun, MAN baterien belaunaldi berri batean ari da lanean, zeinak datozen urteetan 400 km-ra arteko autonomia edukitzea ahalbidetuko du, Dbusen operazio betekizunetara egokituta. MAN Lion 's City E modeloak ahalbidetuko du egungo bateriak batera berri horiekin eguneratzea, ibilgailuaren autonomia areagotuta eta zerbitzuan fidagarritasun handiagoa eskainita.

Dbusen probatuko den autobusak flotan sartu diren azken autobus hibridoek estetikara bera du, MAN Lion 's City (12c) Euro 6d modelo, DGTren Eco etiketarekin, aurreko beira zabalagoekin eta lineari eta helmugari buruzko informazioa eskaintzen duten autobusaren kanpoaldeko kartel ikusgarriagoekin. Barrualdeari dagokionez, diseinu argia du, eta leku gehiago autobusaren atzealdean, beste lau eserleku gehiagorekin.



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Dbusek MAN fabrikatzailearen 31 autobus hibrido ditu. Era berean, elektromugikortasunari dagokionez, azken urteotan Dbusek apustu garrantzitsua egin du teknologia berrietako autobusekin eta hainbat fabrikatzailerekin **proiektu pilotuak** sartu eta **abian jartzearen** alde. Flotan 12 metroko hiru autobus %100 elektriko, 12 metroko 50 hibrido eta 12 eta 18 metroko ibilgailu %100 elektrikoak ditu, baita autobus hibrido elektriko bat ere, eta horiekin guztiekin Euskadiko flotarik jasagarrienetako bat da.

Informazio gehiagorako, kontsultatu www.dbus.eus helbidean edo 943 000 200 telefonora deituta.

